


# Mundua aldatuko duten pertsonen bila gabiltza
# Zure bila!

Bizitza ulertzeko modu bat da boluntariotza, gizatasun eta elkartasun handiagoko gizarte bat eraikitzea xede duen jarrera bat.

Zatoz boluntario gisa Save the Childrenera, eta alda dezagun elkarrekin milioika haurren mundua. Partekatu zure denboraren balioa, zure ezaguerak eta zure esperientzia, eta lagundu egoera zaurgarrienetan dauden haurrei, gaur egun nahiz etorkizunean aukera bat izan dezaten.

***Segurtasun-politikagatik eta kalitateagatik, ez ditugu boluntarioak beste herrialdeetara bidaltzen. Save the Childrenen nazioarteko sareko kideen webgunea bisita dezakezu, boluntariotzako aukerak ezagutzeko, eta herrialdeko bulegoarekin zuzenean harremanetan jartzeko.***

Save the Children

*voluntariado@savethechildren.org*
*Telefonoa.- 945 13 43 68*

*www.savethechildren.es*



# SAVE THE CHILDRENEN ESKU-HARTZEEN ESPARRUAK:

Osasuna eta elikadura

Hezkuntza

Haurren babesa

Haurren eskubideen defentsa

**Osasuna eta elikadura.** 2015ean, haurrei zuzendutako 8,4 milioi esku-hartze egin genituen osasunaren arloan, 36 herrialdetan



**“Zure eskua emateak trukean askoz gehiago jasotzea esan nahi du”**



*“Oraindik boluntario ez den pertsona bati hauxe esango nioke: denbora librea baduzu eta denbora horrekin zer egin ez badakizu, eskain iezaiezu behar duten pertsonei, ez haiengatik soilik, zeuregatik baizik”.*

***Andrea Calvo. Komunikazio-arloko boluntarioa Euskadiko egoitzan***

# **Hezkuntza.** Gure hezkuntza-programak 12,2 milioi haurri iristen zaizkie mundu osoan



# **Haurren babesa.** 2,6 milioi haurri eskaintzen diegu arreta mundu osoan

**“Konpromiso sozial handiena norberarengandik hasten da. Egin zaitez boluntario. Senti ezazu boluntariotza”**





*“Milioika haurrek eta gaztek bizi dituzten errealitate sozialek, kulturalek, gatazkek eta errealitate politikoek kezkatzen nautelako naiz boluntario Save the Childrenen. Save the Childrenek lan handia egiten du hainbat arlotan, pertsona horiei laguntzeko. Horrexegatik, zoriontsua naiz familia handi honetako kide izanez.”*

***Lara Carrasco. Euskadiko egoitzako boluntarioa***

# Haurren eskubideen defentsa. Ordenamendu juridikoetan aldaketak lortzeko lan egiten dugu mundu osoan



# **Larrialdi humanitarioak.** 2015ean, 99 larrialdik eragindako 5,7 milioi haurri lagundu genien 59 herrialdetan



# Haurtzaroa Espainian. Haur guztiek aukera berak izan ditzaten borrokatzen gara



1. HAUR-POBREZIA ESPAINIAN
2. HAURREN AURKAKO INDARKERIA
3. HAUR ERREFUXIATUAK eta BIDAIDERIK GABEKO ADINGABE ATZERRITARRAK (MENAK)

EGOITZAK:
Bilbo
Vitoria-Gasteiz
Valentzia
Madril
Sevilla
Bartzelona
Melilla

# Boluntariotza, eragile eraldatzaile gisa

"Haurren belaunaldi bakoitzak mundua berreraikitzeko aukera eskaintzen dio gizadiari"

**Eglantyne Jebb**
(Save the Childrenen fundatzailea)





# Gure artean nahi zaitugu!

Boluntarioek beren denboraren balioa, beren ezaguerak eta beren esperientzia partekatzen dituzte, egoera zaurgarrienetan dauden haurrei laguntzeko, gaur egun eta etorkizunean aukera bat izan dezaten.

**“Boluntariotzak bizitzak aldatzen ditu”**



# Boluntariotza Euskadin… Zertan lagundu dezaket?

✓**Ekintza soziala**

Zuzeneko esku-hartzea haurrekin (gizartea, hezkuntza, aisia eta denbora librea), proiektuen formulazioa, etab.

- **Barakaldoko Haurtzarorako Arreta zentroan** (hezkuntza, aisia, futbola, saskibaloia, irteerak, udako koloniak, etab.)



✓**Sentsibilizazioa eta haurtzaroaren aldeko politikak**

Ikerkuntzarako laguntza, eragin politikoa, sentsibilizazio-saioak, datuen eta informazioaren sistematizazioa, etab.

✓**Marketina & Komunikazioa**

Edukien idazketarako laguntza, kanpainak, Gizarte Erantzukizun Korporatiboko ekintzak, etab.

✓**Aliatu estrategikoak**

Bazkideen eta emaileen fidelizaziorako laguntza.

✓**Kudeaketa, administrazioa, kontabilitatea eta legea**

Kudeaketarako laguntza, administrazioa, bulegoko logistika, kontabilitatea eta langileen edo legeen esparruko administrazioa.

✓**Itzulpenak eta boluntariotza digitala**

*"Boluntario hasi nintzen, mundu osoko haurren bizitza hobetzen laguntzeko"*

***Maite Vicente. Administrazio-arloko boluntarioa Euskadiko taldean***

# Nola izan boluntario Save the Childrenen

## Boluntariotza Euskadin

✓**Eman izena Save the Childrenen webguneko inprimakiaren bidez:**

[www.savethechildren.es/ofertas-empleo/voluntariado/bolsa-voluntariado/formulario](www.savethechildren.es/ofertas-empleo/voluntariado/bolsa-voluntariado/formulario)

✓ **Deitu telefono-zenbaki hauetako batera:**

946 620 109

945 13 43 68 (Goizez) / 91 513 05 00

✓ **Bidali zure curriculuma helbide elektroniko hauetako batera, zure interesak adieraziz:**

voluntariado@savethechildren.org

voluntariado.euskadi@savethechildren.org



# ESKERRIK ASKO

Save the Children